



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak, Ana Madariagak, azaroaren 25a Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dala-ta prestatutako eretxi artilkulu baten bitartez, gogora dakarsku indarkeria matxistaren aurkako politika publiko ekintzaileak gora-behera, errealitateak erakusten dituan datu gordinek ez deusiela esku emoten baikortasunari, ez munduan ez hemen bertan ere. 2011. urtean Bizkaian tratu txarren 2.747 kasu izan ziran, urte bete arinago baino %17 gehiago. Azaroaren 25aren inguruan ohikoa baihurtu da Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan agirian jartea indarkeria horren aurkako puntu lila. Ona da gizagabekeria hori ez ahaztea, “hondino asko dago-ta egiteko”. Hori dala-ta, Madariaga andrearen ustez, indarkeria hori “ohikotzearen” aurka altxatu behar dogu.

2.747 eguneko urtea

Urte asko joan dira 1960ko azaroaren 25etik, hain zuzen ere Mirabal ahizpak Errepublika Dominikarrean hil zituzten egun horretatik. Hilketa politikoa izan zen hiru ekintzaile horiena. Hil aurretik, atxilotu, bortxatu eta gupida gabe torturatu zituen Rafael Leónidas Trujillo satraparen diktadura erregimenak. Trujillok artean ere New Yorken desagerrarazi zuen Jesús de Galíndez euskalduna. Bihar, azaroak 25, “**Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna**” da. Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1999. urtean erabaki zuen egun hori izendatzea hilketa politiko haren oroigarritzat.

Urtean zehar gero eta ugariagoak dira bidezko zerbait gogorazteko izendatutako egunak. Nazioarteko egunak nabarmen areagotu dira. Ugartasun hori gora-behera, balio izaten dute gogoak astindu eta hausnarketa eragiteko egun berezi hori gabe nekez azaleratuko lirakeen arazoez. Hiesa, euskara edo bularreko minbizia, esate baterako, egun bereziori esker heldu izan dira azken asteotan hedabideetara. Era berean, genero indarkeriaren aurkako nazioarteko egun horrek ere balio izaten du urtero argitara ekartzeko gai horren inguruko kanpainak, azterlanak, hitzaldiak, hausnarketak,... jakin dakigun arren urteko egun guztiak ere nahikoa ez lirakeela izango emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokan jarduteko.

Etxe barrukoa izatetik gizartean zabal salatzera

Errepublika Dominikarrean gertaturiko hilketa haietatik hamarkadak joango ziren, baina emakumeenganako indarkeria hortxe dago, iraunkor. Dena den, aldaketak gertatu dira indarkeria horren ezaugarrietan, gure herrialdean bai behintzat. Horren erakusgarri, zilegi bekit nire hurko lagun batek egunotan kontatu didan benetako adibide bat hona ekartzea, ikusteko orain asko ez dela nolakoa zen indarkeria matxista.

Francoren diktadurapean urte asko generamatzan. Indarkeriak gizartearen eta politikaren arlo guztiak hartzen zituen, era batera edo bestera, hezkuntzatik familiarainoko guztia. Inguruabar horretan, bada, andre-gizon batzuk daude, orduan ohikoa zen seme-alaba askorekin. Senarra “halakoa”. Alkohol gehiegi. Zaratak. Tratu txarrak beti. Kolpeak eta ubeldurak. Umeak ere jipoituta. Gau askotan, emazteak ume guztiak hartu eta etxetik alde egin behar, gaur egun desagerturik dauden arren, sasoi hartan zeuden garbitegi komunitarioetariko baten lo egin ahal



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

izateko. “*Etxe barruko*” drama izugarria, bizi guztikoa, harik eta gizon zantarra hil zen artekoa, hil bai baina zahartzaroak jota eta emazteak eta seme-alabek azkenera arte zainduta, ez edozertara. “Etxeko” indarkeria, auzokoak eta familiakoak horren jabe zirela, gizarte frankista hartan inoiz salatu ezinekoa, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasuna baitzen diktaduraren oinarrietako bat; inon agertzekotan, “*El Caso*” aldizkarian agertzen ziren horrelangoak.

Franco hildakoan, zorionez, gauzak asko aldatuz joan ziren. Hemen “*etxeko*” indarkeria familiaren eta pribatutasunaren eremutik atera da arian-arian, eta gizartearen aurrean eta hedabideetan den bezala agertuz joan da. Bazeuden, “gizartearen ontasunak” itsuturik, uste zutenak arazoa heziketaren bitartez desagertuko zela belaunaldi berriekin; erabat erratu ziren baina. Estatistikak setatiak dira eta argi erakusten dute genero indarkeriak aurrera egiten duela gazteen artean.

Nazio Batuak eurak ere zorrotzak dira: “*Emakumeenganako indarkeria ez da mugatzen kultura, erlijio edo herrialde jakinen batzuetara. Emakumeenganako indarkeriaren sustraiak emakumeek pairatu behar duten indarkerian sakon errotuta daude. Emakumeen %70eraino heltzen da bizialdian inoiz indarkeria jasango duten emakumeen kopurua. Kalkuluen arabera, mundu osoan, emakume guztien bostetik bat izango da bortxaketaren biktima. 15-44 urte tarte horretako emakumeek arrisku handiagoa dute etxean portu txarra hartu edo bortxatuak izateko minbizia, trafikoa, istripua, gerra edo malaria izateko baino*”.

Indar gaztea matxismoaren aurka

Euzko Alderdi Jeltzalearen oraintsuko Hauteskunde-Egitarauan konpromiso eta ekimen zehatzak planteatzen ziren genero indarkeria ezabatzeke: “*Genero-desberdintasuna erronka sozial nagusietako bat da, eta indarkeria matxista desberdintasun horren adierazpen gorena eta basatiena da. Ahalik eta ahalegin gehienak egin behar ditugu indarkeria matxista desagerrarazteko, emakumeen aurkako indarkeria, eta bereziki gazteen artekoa eta edozein adierazpide duena, baztertzeko gizarte kontzientziatzeko lana areagotuta. Hori lortzeko, beharrezkoa da abiarazitako ekimenak indartzea eta gazteei indarkeria sexistak ezagutu eta antzeman ahal izateko eta horren aurka egiteko tresnak eta baliabideak emango dizkieten estrategia berriak eskaintzea, hezkuntzan eta jarrera sexisten prebentzioan lan eginez eta mota guztietako erasoaren aurrean eginkizun aktiboa hartzera bultzatuz*”.

Ban Ki-moon Nazio Batuen Idazkari Nagusia ildo beretik zihoan orain dela urte bete egindako adierazpenetan: “*Geure burua sendo bideratu dugu “zero tolerantzia” mezua azken txokoetaraino hel dadin. Hori lortzeko, bada, gizarte guztia inplikatu behar dugu, batez ere gazteak. Berariaz bultzatu behar dira ume eta gazteak, beraiek izan daitezkeen behar dugun aldaketaren suspertzaile. Gizontasun eredu egokiak bultzatu behar ditugu. Oraindik orain gazte gehiegi hazten da gizontasun eredu zaharkituen artean. Emakume eta neskeenganako indarkeriaz lagunen artean hitz egiten badute eta horren aurka bakoitzak ere egin behar duela ikusten badute, asko izango da belaunaldietan zehar sendo sustraitutako jokabideak aienatzeko. Nazioarteko Egun honetan, bada, mundu guztiko gobernuei eta nazioei dei egiten diet –gaineratu zuen abenduko hitzaldi hartan– balia ditzaten gazteen indar, ideia eta dinamikotasuna, indarkeriaren pandemia hau ezabatuko badugu. Orduan eta orduan baino ez dugu lortuko mundu bidezkoagoan, baketsuagoan eta berdintsuagoan bizitzea.*”



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Politika publiko ekintzaileak gora-behera, errealitateak erakusten dituen datu gordinek ez diote esku ematen baikortasunari, ez munduan ez hemen bertan ere. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren arabera, gure Lurralde Historikoan bertan egunero sei salaketa egiten dira. 2011. urtean Bizkaian tratatu txarren 2.747 kasu izan dira, urte bete arinago baino %17 gehiago. Espainian, 2012 urtean —eta urtea ez da bukatu oraindik— 50 emakumezko hil dituzte. Zenbakiok ez dira, ez, lasaitzeko modukoak.

“Ohikotzeari”, ez

Ageriko gauza da asko falta dela emankumeenganako indarkeria ezabatzeko erronka gainditutakotzat jotzeko eta betiko ezabatzeko emakumeek pairatzen duten babesgabetasuna eta harreman pertsonalen duintasunik eza, familian eta hurbilekoengan ere babesik aurkitzen ez duena. Zenbat eta zenbat dagoen egiteko; dena den, azpimarratu egin nahi dut indarkeria hori “ohikotzearen” aurka altxatu behar dugula.

Ez da izango datu enpirikoa edo zientziaren bitartez ateratakoa, baina susmoa dut genero indarkeria dagoeneko ez dela albiste. Kazetariak esaten dute gauza bera gertatzen dela gertakari kroniko edo ohikoekin. Berria izan ezean edo nolabaiteko harridura gabe, albisterik ere ez. Beste gai batuzk daude goiburuetan “moda iraunkor” balira bezala. Ematen du emakumeenganako indarkeriaren tokia hartu dutela jaio-berrien lapurketak edo frankismoak, edo, orainsuago, etxetik kanpora botatzeak eragindako egoera negagarriak. Hor dirauten arazoak kronikotu egiten dira eta gutxika-gutxika, berez-berez, murriztuz doaz hedabideetan.

Tamalez, aurrerantzean ere ezinbestekoak izango dira sentsibilizazio eta laguntza ekintzak, baldin eta emakumeenganako indarkeria betiko ezabatu nahi badugu. Erakundeen arteko koordinazioak derrigorrez bultzatu behar du milaka biktima horienganako arreta benetan eraginkorra izatea. Euskadin behingoan lortzeko erronken artean dugu indarkera mota horren biktimen legea onartzea, biktimek merezi duten kalteordain ekonomikoa eta morala izan dezaten eta gizartearen aldetik aintzat hartuta egon daitezen.

ANA MADARIAGA UGARTE

Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria

Laburrean - ***EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA “KRONIKOTUA”
HASI DA ALBISTE EZ IZATEN***



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Madariaga, nos recuerda con motivo del 25 de Noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres, a través de un artículo de opinión, que pese a las activas políticas públicas, los datos de la cruda realidad no permiten ser optimistas ni a nivel global ni aquí mismo, en lo que respecta a esta lacra social que representa el maltrato sexista. En 2011 se produjeron 2.747 casos de maltratos en Bizkaia, un 17% más que un año antes. Como viene siendo habitual por estas fechas, el Parlamento de Bizkaia luce el punto lila como símbolo de su rechazo a este tipo de violencia. Es bueno que esta sinrazón no quede en el olvido porque todavía “falta mucho” por hacer. Por eso, Madariaga aboga por rebelarnos frente a la “rutinización” de esta violencia.

Un año de 2.747 días

Un ya lejano 25 de Noviembre de 1960 las hermanas Mirabal fueron asesinadas en República Dominicana. Fue un crimen político. Antes, las tres activistas fueron reiteradas veces encarceladas, violadas y torturadas por el régimen dictatorial del sátrapa Rafael Leónidas Trujillo, quien ya antes había hecho desaparecer en Nueva York al vasco Jesús de Galíndez. Mañana, 25 de Noviembre, es el “*Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra las mujeres*”. La Asamblea General de Naciones Unidas acordó en 1999 instaurar esta fecha como recuerdo de aquel asesinato político.

Cada vez más no hay fecha en el año que no lleve un calificativo unido a una causa justa. Los días internacionales han proliferado más y más. A pesar de la sobreabundancia, suelen ser útiles para remover las conciencias y provocar la reflexión sobre problemas que sin este impulso apenas podrían aflorar. Sida, euskera o lucha contra el cáncer de mama llegan así estas semanas a los medios de comunicación. Esta conmemoración internacional contra la violencia de género sirve cada año para hacer aflorar campañas, estudios, charlas, reflexiones,...para un año que se queda sin suficientes días para luchar por la eliminación de la violencia contra las mujeres.

De la intimidad doméstica a la denuncia social

Han pasado décadas desde aquellos asesinatos cometidos en República Dominicana. La realidad de la violencia contra las mujeres no ha decrecido, pero sí se han visto modificados sus perfiles, al menos, en nuestro país. Permítanme apuntarles un ejemplo real que estos días me contaba un buen amigo para situarnos en el pasado reciente de la violencia machista en Euskadi.

Largos años de dictadura franquista. De una u otra forma la violencia impregnaba todos los ámbitos sociales y políticos, desde la educación hasta la familia. Un matrimonio con familia numerosa de las de entonces. Un marido de la “*Situación*”. Exceso de alcohol. Gritos. Malos tratos habituales. Golpes y moratones. Niñas y niños también víctimas de las palizas. Muchas noches la mujer, cargada con toda la prole, escapaba de la casa familiar para dormir en uno de aquellos lavaderos comunitarios, hoy ya desaparecidos. Un drama “*íntimo*” que duró toda una vida hasta la muerte del maltratador, ya muy anciano y cuidado por su mujer e hijas. Una violencia “*doméstica*”, conocida por vecinos y familiares, nunca denunciada en aquella sociedad franquista en la que la desigualdad entre hombres y mujeres era una de las bases del régimen dictatorial, pero que no existía más allá de su aparición en las páginas de “*El Caso*”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Con la desaparición de Franco, afortunadamente muchas situaciones fueron cambiando. En nuestro país la violencia “doméstica” ha dejado paulatinamente el ámbito privado y familiar para visibilizarse socialmente y a través de los medios de comunicación. Quienes desde el “buenismo social” pudieran pensar que estábamos ante una causa educacional que desaparecería con las nuevas generaciones, se equivocaron. Las estadísticas son machaconas e indican que la violencia de género se sigue reproduciendo entre los jóvenes.

Las propias Naciones Unidas son taxativas al respecto: *“la violencia contra las mujeres no se confina a una cultura, región o país específico. Las raíces de la violencia contra la mujer yacen en la discriminación persistente contra las mujeres. Hasta el 70% de las mujeres experimenta violencia en el transcurso de su vida. Se calcula que a nivel mundial, una de cada cinco mujeres se convertirá en víctima de violación en el transcurso de su vida. Las mujeres de entre 15 y 44 años de edad corren mayor riesgo de ser violadas o maltratadas en casa que de sufrir cáncer, accidentes de vehículos, guerra y malaria”*.

Energía joven contra el machismo

En su reciente programa electoral, el Partido Nacionalista Vasco marcaba concretos compromisos e iniciativas para erradicar la violencia de género. Los principios que tratarán de marcar la política del gobierno de Iñigo Urkullu dejan claro que *“la desigualdad de género representa uno de los principales retos sociales, constituyendo la violencia machista su máxima y más brutal expresión. Debemos volcar todos los esfuerzos posibles en poner fin a la violencia machista, intensificando la labor de concienciación social en el rechazo de la violencia contra las mujeres, especialmente entre las y los jóvenes y a través de cualquier medio de expresión. Para lograrlo, es necesario fortalecer las iniciativas puestas en marcha y ofrecer nuevas estrategias que doten a las personas jóvenes de herramientas y recursos para que puedan conocer y reconocer la violencia sexista y combatirla, trabajando en la educación, en la prevención de comportamientos sexistas y animándoles a adoptar un papel activo ante todo tipo de agresiones”*.

El Secretario General de Naciones Unidas, Ban Ki-moon, incidía hace ahora un año en esta misma línea argumental: *“Nos hemos propuesto asegurarnos de que el mensaje de “tolerancia cero” llegue a todos los rincones. Para lograrlo, hemos de implicar a toda la sociedad, y especialmente a los jóvenes. En particular, se ha de alentar a los niños y a los jóvenes a ser los impulsores del cambio que necesitamos. Hemos de promover modelos de masculinidad saludables. Siguen siendo demasiados los jóvenes que crecen rodeados de estereotipos masculinos desfasados. Con solo hablar con sus amigos y compañeros sobre la violencia contra las mujeres y las niñas, y poner de su parte para acabar con ella, pueden contribuir a desterrar un comportamiento arraigado desde hace generaciones. En este Día Internacional –concluía el pasado diciembre- insto a los gobiernos y asociados en todo el mundo a que aprovechen la energía, las ideas y el dinamismo de los jóvenes para ayudarnos a poner fin a esta pandemia de violencia. Solo entonces viviremos en un mundo más justo, pacífico y equitativo”*.

A pesar de las activas políticas públicas, los datos de la cruda realidad no permiten ser optimistas ni a nivel global ni aquí mismo, en lo más cercano. Según el Observatorio de la Violencia de Género en Bizkaia, cada día se realizan seis denuncias en nuestro territorio histórico. En 2011 se han producido 2.747 casos de maltratos en Bizkaia, un 17% más que un



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

año antes. En lo que llevamos de 2012 en el Estado español son ya 50 las mujeres asesinadas. Los números no permiten interpretaciones tranquilizadoras.

No a la “rutinización”

Es evidente que falta mucho para lograr el reto de acabar con la violencia contra las mujeres, contra esa indefensión y pérdida de dignidad en las relaciones personales, sin escape, ni refugio en el ámbito más familiar y cercano. Queda muchísimo por hacer, pero me gustaría subrayar que debemos rebelarnos frente a la “rutinización” de esta violencia.

Aunque no es fruto de una observación empírica y científica, tengo la sensación de que la violencia de género empieza a dejar de ser noticia. Los periodistas dicen que suele suceder con todo aquello que parece ser crónico y rutinario. Sin novedad y una cierta sorpresa no hay noticia. Otros temas ocupan las primeras planas como si de “modas pasajeras” se tratara. Podría parecer que el hueco de la violencia contra las mujeres fue ocupado después en los medios por el robo de bebés en el franquismo o, ahora más recientemente, por la dramática situación generada por los desahucios de viviendas. Los problemas permanecen, se terminan por cronificar. Poco a poco, sin aparente justificación, merma su presencia en los medios de comunicación.

Desgraciadamente serán imprescindibles sucesivas nuevas actuaciones de sensibilización y apoyo encaminadas a erradicar la violencia contra las mujeres. Desde la coordinación institucional se hace imprescindible impulsar la eficiencia y eficacia en la atención a miles de víctimas. Aprobar una ley de víctimas de esta violencia, con medidas concretas para su resarcimiento económico y moral, así como para su reconocimiento social, es uno de los retos inmediatos en Euskadi.

Ana Madariaga Ugarte

Presidenta Juntas Generales de Bizkaia

Sumario - ***LA “CRONIFICADA” VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES
EMPIEZA A NO SER NOTICIA***